

JESUS, EZ DOZU ESKURIK

Jesus Jauna, ez duzu eskurik;
geure eskuak baizik ez dituzu,
zuzentasun eta senidetasunezko
mundu berria eraikitzeko.

Jesus Jauna, ez duzu oinik;
geure oinak baizik ez dituzu,
zapalduer askatasunerako bidean
laguntzeko.

Jesus Jauna, ez duzu ezpainik;
geure ezpainak baizik ez dituzu,
behartsuei Berri Ona
iragartzeko.

Jesus Jauna, ez duzu bitartekorik;
geure jarduera baizik ez duzu,
gizon eta emakumeak, benetan,
anai eta arreba izan daitezen.

Jesus Jauna, ez duzu iragarlerik;
geure lekukotasuna baizik ez duzu,
itsumustuka bizitzako bidearen bila ari direnek
aurki dezaten.

Jesus Jauna, geuk izan beharko genuke zeure Berri On,
jendeak irakurtzeko eta ulertzeko moduko Berri Ona,
gure bizitza, gure jokaera, gure hitza, eraikitzailea balitz.

Jesus Jauna, sor daitezela zure elkartean,
gure eliz elkartean,
munduari zure aurpegia erakutsiko dioten pertsonak.